

beroki gorria

Alfonso XIII transatlantikoak Bilbotik zortziehun lagun eramaten zituen Kuba, Mexiko edo New Yorkera. Baina orduan ez zegoen gerrarik, eta gerrarekin itsasontziak Habana zuen izena, Kubako hiriburuarena hain zuzen ere, baina gu Ingalaterrara gindoazen eta bertan kasik lau mila neska-mutiko geunden. Guk betiko izena genuen, baina gutako bakoitzaren identifikazio txartelean zenbaki bat agertzen zen, zenbakia besterik ez, eta oso gutxik genekien zortziehun arte kontatzen, eta oso-oso gutxik lau mila arte.

Itsasontzian geunden gehienok norbaitekin geunden han eta norbait genuen Santurtziko portuan. Beharbada guk errazago ikusten genituen moilan, amak batez ere, musuzapi zuriak astinduka. Agirre lehendakaria esaten zioten gizon serioa ere han ikusten genuen, beroki beltzarekin, bakarrik edo Elizabethekin. Hala ere, adibidez Goizalba ezin genuen ikusi oraindik amaren tripa barruan zegoelako. Gure aitak esaten zuen gerra laster amaituko zela eta egunsenti berri bat izango genuela, eta orduan ahizpatxoari izen hori jarriko geniola: Goizalba. Eta Goizalba izenak egunsentia esan nahi du. Baina aitak zoritxarrez ezin ba alaba ikusi, eta guk aita ere ez. Gu itsasontziak eraman gintuen. Aita gerrak eraman zuen.

Portuan norbait ikusi ala ez, norbait izan ala ez, itsasontziko karelean estu-estu, denok bat ginen eta batera egiten genuen agur. Baina gu ez gindoazen bidaiari Kuba, Mexiko edo New Yorkera. Gu Ingalaterrara bidaltzen gintuzten. Gerratik ihesi. Eta nagusienok ere negar egingo genuen, baina ttikien aurrean negarrari eusten saiatzen ginen eta alfer-alferrik esaten genien:

—Arima tripetatik irteten ikusi arte ezin da negarrik egin.

—Zer da arima?

—Gorputzaren barruan daukagun guztia da —ateratzen zitzaigun igual.

—Orduan, arima gorria da?

Baina gorria, gerezia baino gorriagoa, kartoizko txartelean 412 zenbakiko neskatilaren berokia zen. Eta beroki gorri hura izugarri nabarmentzen zen hainbeste arropa handiegi, hainbeste arropa adabakituuegi, hainbeste arropa grisegi artean. Ezagun zuen neska hark ez zela gurdietan eta kamioietan ibili, ihesi, beti ihesi; ezagun zuen neska hark ez zela Tolosako apeaderoko eskolan babestu, ezta Zestoako edo Karrantzako bainuetxeetan ere, ihesi, beti ihesi. Baina oker geunden.

Denok ezagutzen genituen Durango eta Gernikako triskantzak, baina andereño Estefanak argitu zigun, joan den urtean, Otxandioko jaietan hegazkinak Errepublikaren banderarekin etorri zirela, kolore gorri-hori-moreekin, txantxibiri-txantxibiri, baina propagandaren eta goxokien orde, ustekabeen bonbak bota zituztela eta gorriak eta beltzak ikusi zituztela. Eta esan zigun 412 zenbakidunaren ahizpa ttikia bonbardaketan hil zela, eta hilkutxa zuri batean eraman zutela elizara.

Eta Ageda horrexegatik etorri zela bakarrik *Habana* itsasontzira, eta horrexegatik lagundu behar geniola. Baina guri ere lagundu ziguten eta esne kondentsatua eta gailetak eman zizkiguten. Gero, andereño Estefanak esan zigun biharamunean itsasoratuko ginela eta kamaroteetan atsedean hartzeko eta lo egiten saiatzeko. Baina ezinezkoa zen eta 1.432 zenbakiko mutilak gauza harrigarri bat kontatu zigun:

—Behin, Huidobro poeta horrelako transatlantiko batean etorri zen Txiletik Europara. Behi bat ere ontziratu zuen bidaian zehar seme-alabek esne freskoa edan zezaten.

Joserena zen 1.432 zenbakia, bera ere bakarrik sartu zen itsasontzian, baina Josek nagusien antzera hitz egiten zuen, gurekin ontziratu ziren kasik ehun maistren antzera. Baina bertan geunden gehienok zazpi eta hamabost urte bitartekoak ginen eta ez genekien ondo kontatzen, eta batzuek pentsatu zuten Habanan gutxienez hogei behi beharko genituela eta beste batzuek ehun esan zuten. Baina guztiz ezinezkoa zen itsasontzi izugarrian denok estu-estu geundelako, eta orduan andereño Estefana kantuan hasi zitzaigun:

*Jaizkibel gailurrean, izar bat ageri,
Guadalupeko ama, eder dizdizari.
Erbeste ilun honetan, bera gure argi,
agur ama maitea, agur izar hori.*

Gero Josek jarraitu zuen:

—Huidobro poeta Txilera itzuli zenean, behiarekin batera hirurehun txori, hirurehun urretxindor, sartu zituen itsasontzian, batez ere zoragarri kantatzen dutelako eta bere herrian txori hori ugaltzea nahi zuelako.

Istorio horiek asko lagundu ziguten lokartzen eta amets egiten. Baina gutako asko amesgaiztotan esnatu ginen eta igual Agedaren berokia odoletan gorrituago agertzen zitzaigun. Edo igual gogoratu genuen gure herrira tiroka sartu zirela, eta ahizpa ttikia saltoka hasi zitzaigula, balaren bat airean harrapatu nahian... Baina azkenean etxera iritsi ginen eta amarekin tximistak hartuta alde egin genuen. Eta kamioi batek Tolosaraino eraman gintuen eta untxia lapikoan ahaztu genuen. Askotan gogoratu izan gara gu untxi harekin.

—Aita non dago? —galdetzen zigun ahizpa ttikiak.

—Zeruan.

—Asko berandutzen ari da...

Itsasontzian geunden gehienok norbait izan genuen Santurtziko portuan, edo Abran, edo Galeako muturrean. Eta egunsentiarekin itsasoratu ginenean agurka eta negar antsika hasi ginen. Haiek aieneak eta marrumak, haiek! Benetan ematen zuen arima tripetatik atera zitzaigula. Eta, gero, kostaldetik urruntzean, nola gutako asko ez geunden itsasora ohituta, eta nola itsasoko ikusmira oso zabala zen eta gu titare ttiki bat baino ez ginen, umEEK, erdi txoratuta, esaten ziguten:

—Lagundu itsasora begiratzen... —Baina laster denok botaka hasi ginen eta ez genuen itsasora begiratzeko batere gogorik izan.

Imajinatu genuen itsasaldian zenbat behi beharko genituen, imajinatu genuen kanpoan zenbat egun pasatu beharko genituen, eta gero Ingalaterra nolakoa izango zen imajinatzen hasi ginen. Esaten zuten autoak ezkerretik ibiltzen zirela, ardoa eta sagardoaren orde z zerbeza edaten zutela eta, oso ondo ulertzen ez bagenuen ere, protestanteak zirela. Hizkuntza ere desberdina zuten eta hitz batzuk ikasi genituen, baina hasieran ezin genuen Southamptom esan eta San Fausto ateratzen zitzaigun. Baina Josek oso ondo ahoskatzen zuen eta *wolf* ere esaten erakutsi zigun, eta otsoa esan nahi zuen.

Itsasaldian zehar, bi gerraontzik lagundu ziguten baina Guadalupeko ama lo geratu zen, antza, eta galerna etorri zen eta berriro ere gutako asko eta asko botaka hasi ziren eta beheko literetan zeudenak zerri-zerri eginda geratu ziren. Eta guk, ostera, ezin genuen lorik egin eta andereño Estefanari galdetu genion ea Ingalaterran zehazki zenbat egunetan egongo ginen. Berak esan zigun asko jota sei aste izango zirela eta guk ttikiei esan genien sei lo egin beharko genituela; masustak gorritzerako etxean egongo ginela eta, aurrerago belzten zirenean, mendira joan, eta gozo-gozo jango genituela, loreen usain ederrarekin, eta ordurako dena ahaztuta izango genuela. Andereño Estefanak ondo esaten zigun eta gu ere neba-arrebei ondo esaten saiatzen ginen.

Kasik bi egun behar izan genituen San Faustora arribatzeko. Ostiral goizean itsasoratu ginen eta larunbat iluntzean iritsi, baina igande goizera arte ez ginen lehorreratu. Eta Santurtzin bezala, Ingalaterrako portuan jendetza zegoen gure zain. Eta kanpamendura oinez abiatu ginenean, jendea espaloiaren bi aldeetan kokatuta zegoen, banderatxoak astinduka, herriko jaiak balira bezala, oso koloretsu, oso irribarretsu eta oso adeitsu. Eta orduan konturatu ginen han ez zegoela gerrarik, han ez zegoela beldurrik.

Kanpamendura iritsi ginenean, ematen zuen eskimalen artean geundela. Igluak bezalako dendak prestatu zituzten guretzat, zuri-zuriak, igual lauhun edo igual bostehun, baina Ingalaterran geunden. Orduan hamar lagun sartu gintuzten denda

bakoitzean, baina askok pena hartu genuen neba ttikiak mutikoen dendetara eramán zizkigutelako, edo alderantziz.

Kanpamenduan Habana itsasontzian bezala sentitzen ginen, baina handiagoa zen, eta txukunagoa eta, batez ere, ez zen mugitzen eta ez genuen botaka egiten. Gainera, eskola zegoen, eliza eta antzokia toki berean, eta kolunpioak.

—Egin bultza zerura arte —esaten zigun ahizpa ttikiak.

—Zerura arte?

—Bai, aita ikusteko —esaten zuen, eta handiok berriro ere negarrari eutsi behar izaten genion, eta batzuetan basora joaten ginen negarraldi gozo bat egitera.

—Nora zoazte? —galdetzen zigun ahizpa ttikiak orduan.

—Ezkataketan jostatzera, basora.

—Eta ni, non ezkutatuko naiz ni?

Hasieran, egunak kontatzen hasi ginen, baina gero nahastu egin ginen egun guztiak berdinak zirelako. Goizean komunera joaten ginen, baina asko izan, eta ilaran zain egon behar izaten genuen, txizagaleari eutsiz, eta saltoka hasten ginen hanka bakar baten gainean. Mutilak, ostera, denbora-pasa hasten ziren, eta igual lau makila hartzen zituzten, eta makilak fusilak ziren, eta periodiko paperez egindako lau kapela janzten zituzten. Orduan beste lau mutiko parez pare jartzen zitzaizkien, preso moduan, eta beste batek oihu egiten zuen: ‘Apunten, disparen, fuego!’. Eta tiro zaparradarekin, tak-tak-tak-tak, lau presoak zerraldo jausten ziren. Eta orduan batzuk aitarekin edo amarekin gogoratzen ginen eta begietako makarrak kendu behar izaten genituen.

Egun guztiak berdinak ziren, baina batzuetan zerbait aldatzen zen. Adibidez, egun batean beroki gorria beste neska bati ikusi genion: antza, oinetakoen truke aldatu zion Agedari. Baina hurrengo batean beste neska bati ikusi genion, oraingoan belarritako batzuen truke aldatua. Eta gero neska askori ikusi genion beroki gorria. Egun batez, apaizak oinetakorik gabe topatu zuen ahizpa ttikia, eta zapatarik ez zeukala jakinik, diru apur bat eman zion zapatak erosteko. Baina ahizpa ttikiak nahiago izan zuen esne kondentsatua eta gailetak erosi. Hanka hutsik jarraitu zuen, baina tarte batean tripa beteta. Eta ezkutatu egiten zen apaiza ikusiz gero. Baina hartara ezin beroki gorria sekula trukatu, ezin beroki gorria egundo jantzi...

Halako batean, hainbat neskatilari arima gorri-gorri atera zitzaigun eta ikaratu egin ginen, baina erizainek eta Jesus eta Severino sendagileek esan ziguten normala zela eta ez genuela zertan negar egin. Orduan zapiak eman zizkiguten hankartean jartzeko eta odola biltzeko, eta hilero gauza bera gertatuko zitzaigula esan ziguten. Baina batez ere gero eta zuriago geunden, gero eta gardenago, kristala bezala, eta batez-batez ere, Jose. Bera ezin zen kolunpioetan ibili, ezin zen basoko zuhaitzetara

igo handik itsasoa ikustera jostatzeko. Mutikoak esan zigun leuzemia zeukala eta, zauria eginez gero, odol jarioa ez zitzaiola eteten. Eskola maite zuen Josek, eta liburuak, eta Lord Farringdonek benetako eskolara eramane nahi izan zuen, baina mutilak ezetz esan zion:

—Gure aitak labe garaietan egiten zuen lan eta labe garaietan lan egingo dut nik ere
—eta gero guri sekretuka esan zigun burdinak eta ikatzak barruan bihotza dutela, gorri-gorria eduki ere.

Egun guztiak berdinak ziren, baina egun batean Jose oso gaixorik jarri zen eta apaizak esan zion aitortza egin behar zuela. Baina Josek ez zuen nahi izan eta esan zigun Huidobro poetaren hilobian hitz hauek daudela: «Zabaldu hilobi hau. Hondo sakonean itsasoa ikusten da», eta berak ere laster itsasoa ikusiko zuela. Eta apaizaren ordean, Luis joan zitzaion, eta tutore maiteari poema bat irakurtzeko eskatu zion, eta gero esan zion:

—Geratu hor, mesedez, baina ni hormara begira jarriko naiz. Ez dut nahi zuk ni hiltzen ikustea.

Orduan oso bakarrik sentitu ginen eta hasieran basora joan ginen negar egitera eta gero elizan oso kantu politikak kantatu genizkion. Orduan ahizpa ttikiak esan zigun inbidia zigula jaunartzen genuelako eta, belauniko, aurpegia bi eskuetan biltzen genuelako eta orduan Jainkoarekin hitz egiten genuelako. Hala ere, bera ere otoitz egiten saiatu zen:

—Jainkoa, mesedez, ez egin horrenbeste lo eta lagundu apur bat.

Izan ere Jainkoak, txoriek bezala, dena zekien baina ez zuen ezer egiten gu handik etxera eramateko. Eta arima mutikoen belaun urratuen antzera geneukan. Oso urratua. Oso garden. Oso-oso. Eta kanpamenduan denok ere gero eta elkarren antz handiagoa genuen.

Bai, kanpamenduan egun guztiak berdintsuak ziren, baina ekain erdialdeko egun bat erabat desberdina gertatu zen eta andereño Estefana eta helduak oso serio ikusi genituen. Atzera-aurrera eta oso artega. Larunbata zen eta iluntzean bozgorailuetatik zerbait esan zuten ingelesez, eta batzuek *wolf* ulertu genuen, baina beste batzuek *war* entzun zuten, baina Jose gurekin egon ez itzulpena egiteko. Handik gutxira zarata bat entzun zen, eta ez tul bat, eta halako batean apaizaren ahots ezaguna iritsi zitzaigun, baina oso ahul, oso desberdina, eta ez betiko zorrotasunarekin:

—Zoritxarrez, Bilbo erori da...

Nagusiok orduantxe ulertu genuen gu ere erori egin ginela eta ez ginela berriro altxatuko. Ez genituela gurasoak berriro ikusiko. Ez zela egunsenti berririk izango. Beharbada Goizalbari beste izen bat jarriko ziotela: Nekane, adibidez. Nagusiok orduantxe ulertu genuen Bilbo mendean hartu zutela eta ez zegoela zer eginik. Ez ginela etxera itzuliko. Erori egin zela Bilbo eta ez genuela ama berriro ikusiko.

Eta bat-batean, Habana itsasontzian baino orru eta garrasi handiagoak entzun ziren, eta gutako askok eta askok ‘Ama, ama!’ oihukatu genuen. Beste askok harriak eta makilak hartu, eta bozgorailuei bota genizkien, eta beste batzuek beren burua lurrera bota, eta kopetaz lurra jo genuen, edo, amorratuta, landareak erro eta guzti atera genituen. Eta gero asko eta asko negar batean itzuli ginen dendetara.

Baina gutako beste asko harria baino geldiago geratu ginen, ez zerurako ez lurrerako, malko gehiagorik gabe. Eta igual izango ginen ehun, igual berrehun, igual hirurehun. Denak batera, ez aurrera ez atzera, eta denak bakarrik. ‘Eta ni, non ezkutatuko naiz ni?’. Eta arnasestuka joan ginen basora, trumilka, itotzeko zorian. Hirurehun urretxindor triste. Gau beltzean, korrika, ihesi. Eta atzera begiratu genuenean, kanpamenduan ez genuen inortxo ere ikusi. Bakar-bakarrik bi txakur zeuden, elkarri ipurdia usnaka, txandaka. Eta haien ondoan, lokatzetan, beroki gorria zegoen, zimur, zikin, odol malko handi baten antzera.

*Agirre lehendakaria
**Luis Cernuda poeta